

1992ko MAIATZAREN 25eko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, mila bederatzehun eta laurogeitamabiko maiatzaren hogeitabostean, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Belen Zabala Olano; Udalkideak: Jose Antonio Mintegi Arrate, Julian Zubeldia Aierbe, Mikel Zelaia Ezenarro, Castor Olaetxea Garaikoetxea, Iñigo Arreseigor Bengoetxea; Ramon Bengoetxea Altuna ez da etorri; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Idazkariak, aurreko saioen aktei ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

NARBAITZUKO EGUR PROBETXAMENDUA:

Nekazaritza Batzordeko partaidea den, Jose Antonio Mintegi Arratek, hitza harturik, Narbaitzuko Egur Probetxamendurako Baldintza Tekniko Fakultatiboen Pleguaren berri eman du, eta hauek dira:

Lizartzako Udalaren NARBAITZU Onura Publikoko 71 zk. mendian egur probetxamendua.

1.- Probetxamenduaren bereiztasunak

1.1. Baldintza Pleguaren barnean sartzen dira biak batera eta matarrasan egin beharreko hostozabal eta erretxinadunen gaineko egur probetxamendua, Narbaitzu 71 zk. O.P.ko mendiko unada batzuetan.

1.2. Lekua:

Mendiko plano ofizialeko 28, 29 eta 30 zk.ko unadetan, Pinus radiata (Intsinis pinua) eta Robinia Pseudoacacia (Sasiarkazia) espeziez landatuta dagoenetan.

1.3. - Pinus radiataren (Intsinis pinuaren) 145 oin.

- Robinia Pseudoacaciaren (Sasiarkaziaren) 938 oin, erabat moztutakoak (matarrasan) aipatutako 28, 29 eta 30 unadetan.

1.4. **Gutxigorabeherako Kopurua:**

- 118 m³ errealean, azalarekin eta puntarik mehenean 7 cm-rainokoa bada Pinus radiatako (Intsinis pinuko) 145 oinetarako.

- 185 m³ errealean eta azalarekin Robinia Pseudoacaciako (Sasiarkaziako) 938 oinentarako.

1.5. **Tasazioa:**

- Lizitazioaren prezio oinarria: 1.071.000,- pezeta.

- Prezio Indizea: 1.338.750,- pezeta.

Oharra: BEZ kontzeptuan aplikagarri den zerga tasa %4a da eta prezio hauen barnean dago.

1.6. **Tasak:** 41.511,- pezeta.

1.7. Produktu hauek likidatuko diren unitate komertziala: **"Arrisku eta menturan"**.

1.8. **Lanak bukatzeko epea:**

1.993ko Irailaren 30ean amaituko da.

2.- Baldintza Orokorrak

Baldintza Tekniko-Fakultatiboetako Plegu Orokorrean (Ikus 1975-IV-24eko

Ebazpena) eta Baldintza Tekniko Fakultatiboen Plegu Berezian (Ikus 1975-V-6eko Ebazpena) ezarritakoak beteko dira.

3.- Baldintza Espezifikoak

- 3.1. Erabiliko diren sakabideak: Egun mendian daudenak dauden bezala. Erreparatu edo berriak egin behar izanez gero, aldez aurretik Basozaintza Zerbitzuari eskatu behar zaio eta baimenduz gero, probetxamenduaren adjudikaziodunak finantziatu beharko ditu.
- 3.2. Probetxamendua bukatu eta gero, adjudikaziodunak erabilitako jatorrizko bideak lehen bezala utzi beharko ditu, eta berriak izanez gero, beraietan ezin hobeto ibiltzeko moduan entregatuko ditu.

Egur Probetxamendu honen enkantea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzen denetik 20 lanegun iragan ondoko eguneko goizeko ordubatean, Udaletxe honetan ospatuko da.

Lizartzako Udalaren, NARBAITZU ONURA PUBLIKOKO 71 Zkia. mendian Egur Probetxamendurako baldintza Tekniko-Fakultatiboen Plegua onartzea, aho batez erabaki da.

GARBITZAILEAREN KONTRATAZIOA

Belen Zabala Olano Alkateak, hitza harturik, zera dio:

Garbitzailearen kontrataziorako azterketak eginez gero, puntuaziorik onena, Mertxe Luluaga Altunak lortu du. Horren arabera, Mertxe Luluaga Altuna, Garbitzaile bezela kontratatua izan dela eta lanean, Maiatzaren 1ean hasi zela, jakinarazten du.

1.991 URTEKO AURREKONTUAREN KONTU OROKORRA

Idazkari-Kontuhartzaileak, 1.991 urteko Aurrekontu Orokorraren Kontu

Orokorra aurkeztu du.

Aurkeztutako Kontu Orokorrean sartzen diren agiriak, hauek dira:

1.991 urteko Aurrekontu Orokorrenen Likidazioa.

1.991 urteko Aurrekontu Orokorrenen Kreditu Aldaketa.

1.991 urteko A.B.I.L.

1.991 urteko Diru-Kontuak eta Ondare Administrazioiko Kontua.

1.991 urteko Aurrekontu Orokorrenen Kontu Orokorri buruz, Idazkari-Kontuhartzaileak eta Hazienda Batzordeak luzatutako aldeko txostenak ikusirik, eta Kontu Orokorra bera azterturik, 1.991 URTEKO AURREKONTU OROKORRAREN KONTU OROKORRA, aho batez onartua izan da.

1.992 URTEKO AURREKONTU OROKORRA

Ekonomi Batzordean aztertuz gero eta, Hazienda Lokalak erregulatzen dituen Abenduaren 28ko 39/1.988 Legearen 149-4 artikulua eta Erregimen Lokaleko Oinarriak Arautzeko Apirilaren 2ko 7/1.985 Legearen 90.1 artikulua eta Erregimen Lokaleko gaietan Apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legearen 126.1 artikuluen arabera, 1.992 Urterako Aurrekontu Orokorra aurkeztu da, honela geldituaz:

1.- AURREKONTU OROKORRA

SARRERAK

1 Kap. - Zerga Zuzenak	6.927.442,- Pezta
2 Kap. - Zeharkako Zergak	2.000.000,- Pezta
3 Kap. - Tasak eta beste diru sarrerak	1.924.522,- Pezta
4 Kap. - Transferentzi Korrontek	39.047.906,- Pezta

5 Kap. - Ondare Sarrerak	1.600.130,- Pezta
7 Kap. - Kapital Transferentziak	4.000.000,- Pezta
9 Kap. - Pasibo finantzieroen aldaketak	4.000.000,- Pezta

GUZTIRA 59.500.000,- Pezta

=====

IRTEERAK

1 Kap. - Pertsonalaren Lansariak	21.546.844,- Pezta
2 Kap. - Ondasun arrunt eta zerbitzuen	21.794.832,- Pezta
3 Kap. - Interesak	1.956.175,- Pezta
4 Kap. - Transferentzi Korrontek	4.279.449,- Pezta
6 Kap. - Inbertsio Errealak	8.130.387,- Pezta
9 Kap. - Pasibo Finantzieroen aldaketak	1.792.313,- Pezta

GUZTIRA 59.500.000,- Pezta

=====

1.992 Urterako Aurrekontu Orokorra eta Egitaratzeko Oinarriak, aho batez onartu dira.

PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA

Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzeko dituen Apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 90.1 eta 90.2 artikuluek eta Erregimen Lokaleko gaitan indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bateragina onartuz, apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legegileko 126.1 artikuluko koerlatiboak erabakitzen dute Udal Korporazioei dagokiela, Aurrekontuaren bidez, urteko Plantilla Organikoa eta Lanpostu Zerrendak onartzea, funtzionari, pertsonal laboral finko eta behin-behineko pertsonalari erreserbatuta dauden lanpostu guztiak barne izan behar dituelarik.

PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA

LANPOSTUAREN IZENA LANPOSTU KOP.-TALDEA-EGOERA-OHARRAK

Idazkari-Kontuhartzailea	1	B	J	70%
Gizarte Laguntzailea	1	B	J	16%
Lanetako Ofiziala	1	D	J	
Administrari Laguntzailea	1	D	J	
Garbitzailea	1	D	BB	
Etxez Etxeko Laguntzailea	1	---	BB	
Peoia	1	E	BB	

Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda, aho batez onartu dira.

Momentu honetan, Ramon Bengoetxea Altuna Udalkidea sartu da, Bilkura Aretoan.

IURREAMENDU EGOITZAN SARTZEKO UDAL ARAUDIA

Belen Zabala Olano Alkatea, hitza harturik zera dio:

Herrian dagoen Edadeko jendea haunditzen doanez eta Gizartean dauden baliabideak eskasak eta desegokiak direnez kasu askotan, Herriko jendeari erantzun egoki bat emateko, lurreamendu Egoitzan sartzeko Araudi bat prestatu da eta honela dio:

TOLOSAKO IURREAMENDI EGOITZAN SARTZEKO ARAUDIA:

AURKEZPENA

Herrian dagoen Edadeko jendea haunditzen doanez eta Gizartean dauden baliabideak eskasak eta desegokiak direnez kasu askotan, Herriko jendeari erantzun egoki bat emateko, Araudi hau egitea behartuak izan gara.

Pertsona guztiak bere etxean eta ingurugiroan bizitzeko eskubidea duenez

eta gizartean dauden baliabide guztiak erabili ondoren, Udal honek IURREAMENDI Egoitzan sartzeko eskaera kasu bakoitza aztertu eta gero aurkeztuko du.

1.- IURREAMENDI EGOITZARI DAGOKIONA:

A. Zuzenbidezko Izaera:

Ingresatuta dagoen jende kopurua eta osasun egoeraren arabera Diputazioaren Gizarte Ongitasunaren Sailatik diru-laguntza jasotzen duen Fundazio Publiko bat da.

Tolosako Alkatea eta zinegotzi batzuk osatzen dituen Juntak, barruko funtzionamendua eta eskaerak erabakitzen ditu.

B. 1.992rako ingreso bakoitzaren kostoa:

. Balidoak 66.000,- Pezta/Hilean (x12)

. Inbalidoak 98.000,- Pezta/Hilean (x12)

D. Onuradunaren Baldintzak:

1. Tolosaldean jaio izatea.

2. Tolosaldean gutxienez 10 urte bizi izatea.

2. UDALARI DAGOKIONA:

A. Eskatzailearen Baldintzak:

- a) Eskaera egiterakoan, gaixotasun mailari dagozkion, Sendagileen Txosten zehatz guztiak aurkeztu beharko dira. (Fisiko, Psikiko, e.a.).

- b) Udaletxean eskaera aurkeztu eta baliabide guztiak desegokitzat eman ondoren, ingresoa tramitatzen hasiko da.
- d) Udaletxean eskaera aurkezten denetik eskatzailea HAMAR (10) urte lehenago herriko erroldan agertu beharko da (nahiz eta eskatzailea Lizartzan jaioa izan).
- e) Eskatzailea Lizartzan jaioa, baina herrian erroldaturik ez denean, erroldatuta dagoen herrian egin beharko du eskaera eta Udal horren gain izango da Egoitzaren kostoa.
- f) Onuradun guztiei zorren aitortpena egingo zaie, Notario aurrean.
- g) Onuradunak, eta kasua denean familiak, bere gain gelditzen den kostua ordainduko dutela ziurtatu beharko dute.

Familia denean, gutxienez famili arteko bi arduradun izendatuko dira.

B. Udaletxean aurkeztu behar den dokumentazioa:

- a) Herriko erroldaren ziurtagiria.
- b) ENAren fotokopia.
- d) Jaiotza Ziurtagiria.
- e) Gaixotasun mailari dagozkioen Sendagileen txosten zehatz guztiak (Fisiko, psikiko e.a.).
- f) Osasun txartelaren fotokopia.
- g) Diru-sarreraren ziurtagiriak:

- Pentsioak.
- Soldatak.
- Errentako Aitorpena.

h) Ondasunen Ziurtagiriak:

- 75 urte bitartekoak, 15 urte aurretikoak, eta 75 urtetik gorakoak, 60 urte ezkerotik. (Urtez urtekoak).
- Etxeak, lurrak, hazienda e.a.
- Banku eta Aurrezki Kutxetan duen dirua, bonoak, laminak.....
Hazienda eta Aurrezki Kutxen ziurtagirien bidez.

D. Aportazio Baremoa:

a) Onuradunak, bere diru-sarrera, ondasun, e.a. kontuan harturik, hileroko kostoa ordain badezake, berak ordainduko du kostu osoa.

b) Onuradunak kostu osoa ordaindu ezin duenean:

- Bere pentsioaren 75% aportatuko du.
- Eta gelditzen den 25% era honetan:

1. Familiak ondasunak dituzenean dana ordaindu beharko du.

2. Familiak ondasunik ez duenean, eta ordainketa egitea ahal izango ez balu, Udalak, kasua aztertzeke konpromezua hartzen du.

E. Plenoaren Akordioa:

Eskaera lurreamendi Egoitzan aurkeztu baino lehen, Plenoak ontzat eman beharko du, eta bere erabakian, "Edozein arazo sortzen denean, Udalak, kasua aztertzeko konpromezua hartzen du" azaldu beharko du.

Familia: Ezkontidea, seme-alabak eta berarekin etxean bizi diren gainontzeko guztiak.

Besteak: Anai-arrebak, ilobak e.a.

Tolosako lurreamendi Egoitzan Sartzeko Araudia, aho batez onartu da.

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAKO ARAUDIKO 23. ART.AREN ALDAKETA

Alkateak, 1.991ko Otsailaren 26ean onartu zen, Etxez Etxeko Laguntzako Araudiaren 23. Art.aren, hau da: Familia Unitatearen Kontzeptuaren, Aldaketa proposatu du, honela geldituko litzatekelarik:

23. Art.- Familia Unitatearen Kontzeptua.

Araudi honetako ondorioetarako, Familia Unitatetzat ulertuko da:

Etxe berebanean erroldaturik eta bizi diren senide guztiak (Gurasoak, seme-alabak, ilobak, anai-arrebak, aiton-amonak, osaba-izebak, bilobak eta haien ezkontideak.)

Proposamena, aho batez onartu da.

LANBIDE HASTAPENENKO TAILERRAK

Apirilaren 9an, Tolosaldeko Lanbide Hastapeneko Zentroan egin zen bileran, Lanbide Hastapeneko programari buruzko finantziario formulari buruzko bi alternatiba proposatu ziren, honako hauek direlarik:

- a) Tolosaldeko Udaletxe guztiek finantzaturiko programa izatea, zentruan herri batetako gazteak matrikulatzen diren edo ez alde batetara utziaz.

Horretarako, Herri bakoitzari dagozkion plazen taula bat egiten da, hau, herriko biztanlegoa eta izango diren tailerren arabera egiten delarik.

- b) Azken 3 urte hauetan aurrera eramane den finantziario erarekin jarraitu.

Udal bakoitzak, urtero eta boluntarioki programan parte hartuko duen erabakitzen du eta matrikulatutako ikasle bakoitzeko finantziazten da.

1. proposamenari dagokionez, planteamendu honen arrazoia, bailarako Udal guztiek, gazteen partaidetza alde batetara utziaz, programa mantentzean datza.

Honela, Udal bakoitzak zehaztutako plazen kopurua bermatzen da eta dana beteko ez balitz, Eusko Jaurlaritzak ezarritako aukeraketa kriterioak kontutan izanik beste herriren batetara zabaltzeko posibilitatea legoke.

Era berean formula honek urteroko aurrekontua aurre ikusteko aukera eskeintzen du, baina kantitate hori, izango zituen plazen eta guztira dauden plazen arabera izango litzateke (Taileren kopurua azken urte hauetan aldatu egin da).

2. proposamena Udaletako ordezkariak 1.990eko Irailaren 13an ospatu zen bileran onartu zen.

Hau baieztatzeko arrazoiak honakoak dira:

Flexibilitatea: Udal bakoitzak urtero eta ikusi ahal izan duen beharren arabera programan parte hartu edo ez erabakitzeko aukera du.

Tolosako Udalak, sinatutako konbenioa indarrean dagoen bitartean,

interesa duen bailarako edozein Udal bertara iristeko ahalmena bermatzen du.

Egoera honen aurrean, bi aukera hauek aztertu eta erabakitzea proposatu dute.

Proposatutako bi aukerak aztertu eta eztabaidatu ondoren, 2. proposamena onartzea erabaki da. Hau da:

Azken 3 urte hauetan aurrera eraman den finantziazio erarekin jarraitzea. Udal bakoitzak, urtero eta boluntarioki programan parte hartzea eta matrikulatutako ikasle bakoitzeko finantziatzea.

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ TALDEAREN MOZIOA

Datorren uztailaren 3tik 6ra, Txirrindularitza munduko lehiaketa nagusia Euskal Herrian izango da, Tour de France lasterketa Donostiatik abiatuko bait da, eta, urtero gertatu ohi den moduan, milioika lagun izango dira mundu osoan gertakizun hau telebistan ikusiko dutenak.

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ taldeak, Euskal Herria bizirik dagoela erakusteko honelako aukera bat ez du galdu nahi. Horretarako ezinbestekotzat jotzen du gure herriaren ezaugarri nagusia den EUSKARAK nazioarteko lehen mailako kirol gertakizun honetan bere lekua izatea, mundu osoari Tour de France Euskal Herritik abiatzen dela erakusteko bide onena eta ziurrena, gure hizkuntzaren presentziaren bidez errealitate hori adieraztea bait da. Izan ere, euskara Euskal Herriko hizkuntza nazionala izateaz gain, hizkuntza ofiziala bait da Euskal Komunitate Autonomoan eta Nafarroako zonalde euskaldunetan. Tamalez, eta indarrez salatu dugun arren, ez du gure hizkuntzak honelako statusik lfaraldean.

Guzti hau kontutan izanik, EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ taldeak honako eskaera hau zuzentzen dio Udal Batzarrari:

1.- Tour de France lasterketako Ohorezko Batzordea osatzen duten

Gasteizko Jaurlaritzako Lehendakari den Jose Antonio Ardantzari, Donostiako Alkate den Odon Elortzari, Gipuzkoako Foru Aldundiako Diputatu Nagusi den Eli Galdosi eta, azkenik, Gasteizko Jaurlaritzako Kultur Kontseilari den Joseba Arregiri, Tour de France inguruko iharduera politiko eta publizitario guztietan euskararen ahozko nahiz idatzizko presentzia ziurtatzeko beharrezkoak diren bitartekoak eskatzea.

- 2.- Tour de France ekitaldiak Donostiatik hasi eta Bera, Lesaka eta Elizondo bitartean zeharkatzen dituen herrietako antolatzaileek prestatuko dituzten ekitaldietan euskararen presentzia ziurtatzeko bitarteko guztiak jarri ditzaten eskatzea kirol gertakizun hau babesten duten Diario Vasco, Kutxa, Once, Orona, Publivia, Ser eta gainerako enpresa pribatuei.
- 3.- Tour de France lasterketako Euskal Herriko Koordinatzaile Nagusi den Juan Jose Arratibeli kazetari, tekniko, korrikalari eta antolakuntzako atal guztiei zuzenduko zaizkien ohar, agiri eta idazki guztietan euskararen presentzia ziurtatzeko bitartekoak jar ditzan eskatzea.
- 4.- Ildo berean, Euskal Herrian Tour de France lasterketa lau egunez ibiliko denez, Tour Elkartearakiko harremanak bideratzen dituen Jose Maria Ezeizari eskatzea Pariseko antolatzaile nagusiei beren ekitaldietan euskararen presentzia ziurtatu behar dutela adieraz diezaien, horretarako bitarteko tekniko guztiak dituztela azalduz.
- 5.- Hartutako erabaki honen berri prentsari zuzentzea.

Tour de France lasterketari buruzko, Euskal Herrian Euskaraz Taldearen Mozioa, aho batez onartu da.

GIPUZKOAKO NEKAZALGO ERAKUNDEAREN ESKAERA

Gipuzkoako Nekazal Kamarak, 1.992ko martoxaren 9an eta, bere aretoan egindako Plenoan, beste puntuen artean, nahiko kezkatzen duen gai bat azaldu zuen, bere arrazoiak emanaz, alegia:

- Azkeneko urte hauetan hobekuntza dexente egin arren, baserritarrak nahiko zailtasun badutela, bizi diren lekuaz jarraitzeko.
- Baita ere esan, beraiek, produzioaz gain, betetzen dituztela beste funtzio batzuek ere, eta hoietako bat ingurugunea zaintzea da, zalantzarik gabe inork baino hobetogo ezagutu eta egiten duan lana dela, horrela errekonozitu dute Europako Erakundeak. Eta arrazoi horregatik eta beren produktoen prezio politiko eskasagatik, laguntza bereziak jarri dituzte, eta buru-belarri dabilta ahaleginak egiten, baserritarrek bere ingurugiroan iraun dezaten, bestela errealitate beltza gerta litekela diote.
- Hari honi jarraituaz ikusten dugu baita ere, gure administrazioak: Gobernuak, Diputazioak, oso kezkatuak daudela gai honetaz eta ahal duen laguntza gehienak jartzen ari direla baserritarrari: baserriak erosteko, etxeak berritzeko, ikuiluak eraikitzeko, basoak txukuntzeko, belardiak hobetzeko eta...., luze batetan diru laguntza haundiak ematen ari dira eta aldi berean, Udal batzuek, administrazioak subentzionatutako ekintza hoieri zerga edo tasak erasten dizkiete, eta hori da ain zuzen, gure ustez behar ez litzekena.

Azken batetan, Gipuzkoako Nekazal Kamarako Pleno honek eskatzea erabakitzen duena zera da:

Administrazioak bere laguntzetan onartutako ekintza hoiek, Udalak zergarik ez kobratzea edo eta kobratzen baditu ere subentzio bezala automatikoki berriro baserritarrari itzultzea, bestela gure ustez kontraesan bat gertatzen da administrazio desberdinen artean eta, Udala izanik gertuena daukagun erakundea, baserritarren etsai bihurtzen zaigu, gai honetan, laguntzaile izan beharrean.

Gipuzkoako Nekazalgo Erakundeak aurkeztu duen mozioa aztertuz gero, Udalak dituen zerga eta tasak ikusirik, Udal honek erabaki du:

- 1.- Baserritik bakarrik bizi direnei, zerga eta tasarik ez kobratzea.

2.- Gainontzeko baserriei, Udalak ezarrita dituen zerga eta tasak kobratzen jarraitzea.

ALKATETZAREN DEKRETUAK

Idazkariak, hitza harturik, aurreko Bilkuratik gaur egundaino, Alkatezak luzatu dituen Dekretuen berri eman du:

LORENZO BARRIOLA TOLOSA.- Lizartzako Planeamenduko Arau Subsidiarioetan azaltzen den, eraikuntzak uzten diren gunean, berriro egin duen pinu landaketa dela eta, hamabost egunetako epea ematea, landatutako pinua ateratzeko.

BRIGIDA IRAZUSTA OLANO Andrearen Oinordekoek.- Lizartzako Planeamenduko Arau Subsidiarioetan azaltzen den, eraikuntzak uzten diren gunean, egindako pinu landaketa dela eta, pinuak ateratzea eta erretiratzeko santzioa ezartzea.

BARTOLO EIZAGIRRE TREKU.- Lizartzako Planeamenduko Arau Subsidiarioetan azaltzen den, eraikuntzak uzten diren gunean, egindako pinu landaketa dela eta, pinuak ateratzea eta erretiratzeko santzioa ezartzea.

JOSE ARZADUN EGILUZ.- Lizartzako Planeamenduko Arau Subsidiarioetan azaltzen den, eraikuntzak uzten diren gunean, egindako pinu landaketa dela eta, pinuak ateratzea eta erretiratzeko santzioa ezartzea.

IMA ZUBELDIA LULOAGA.- Sastinberri Baserriaren teilatuari erretila emateko, tximinia dagoen lekutik kendu eta garai baten zegoen tokian ateratzeko, sukaldea berritu eta bainugela bat egiteko baimena eman zaio.

JUAN KARMELO GOIKOETXEA GOIKOETXEAUNDIA.- Arostegi Baserriaren berrikuntza obrak egiteko baimena eman zaio.

JUAN KARMELO GOIKOETXEA GOIKOETXEAUNDIA.- Arostegi baserriko

belar zuloa lekuz aldatzeko baimena eman zaio.

AGUSTIN GOIKOETXEAUNDIA PAGOLA.- Goikoetxeaundia Baserriaren berrikuntza obrak egiteko baimena eman zaio.

INAXIO ALTUNA AZURMENDI.- Kale Nagusiaren 14-ko etxearen teilatuaren berrikuntza obrak egiteko baimena eman zaio.

PEDRO ARROSPIDE IRAETA.- Zubiaurre Etxearen 1. Ezk.ean obrak egiteko baimena eman zaio.

FRANZISKO OLAETXEA KARRERA.- Kale Nagusia, 17an dagoen etxean obrak egiteko baimena eman zaio.

ROSARIO AROZENA ETXEBERRIA.- Juanmiguel Haundi Baserrian obrak egiteko baimena eman zaio.

GASPAR BARRIOLA IRAZUSTA.- Errota Buru etxean obrak egiteko baimena eman zaio.

ANTTON AZPIROZ OLAETXEA.- Andresoro Baserrian ondoan, kotxentzako garajea egiteko baimena eman zaio.

JESUS M^a ESNAOLA TEILETXEA.- Katarain Enea etxean berrikuntza obrak egiteko baimena eman zaio.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du.